

GAL 30 URTE

Ramon Oñederra, GALEk bere gain hartutako lehen hildakoa

Duela 30 urte gaurko egunez, 1983ko abenduaren 19an, GALEko mertzenario talde batek tiroz hil zuen Kattu, lan egiten zuen tabernan, Kayetenian. Lagun artean xakean jokatzeko aritu eta gero, lagunek alde egin eta tabernan bakarrik geratu zenean sartu ziren GALEkoak. Hari buruzko informazio gehiago [GAL 30 urte webgune berezian](#).

1960ko martxoaren 28an jaio zen, Azkoitian, Ramon Oñederra Bergara *Kattu*. "Mugitua eta bizia" zela diote haren gurasoek eta senideek. Hiru anai-arreben artean erdikoa zen, arreba zaharrago bat eta gazteago bat zituen.

Gaztetatik inplikatu zen politikan. EGAM Euskadiko Gaztedi Abertzaleen Mugimenduko kide izan zen, eta 16 urterako propaganda lanak egiten zebilen. Etxekoek ez zekiten horren berri; "gerora jakin genuen", kontatu du haren arreba zaharrenak. Soldadutza egiteko garaia iritsi zitzaionerako, Lapurdira ihes egin zen, baina haren aitak gogoan du nola esaten zion Franco ez zuela "zerbitzatuko". 19 urterekin joan zen Ipar Euskal Herrira.

Oñederraren familiak ez du erraz ahaztuko Lasa eta Zabalaren desagertzea. Lagun onak ziren hirurak, eta Oñederra izan zen GALEk eraildako bi tolosarrak ikusi zituen azken laguna. Elkarrekin afaldu zuten Lasa eta Zabalarena gertatu zen egunean. "Hurrengoa ni izango nauk", esan zien lagunei.

Haserre izugarria piztu zuen haren hilketak herritarren artean; orduan, Lasarena eta Zabalarena argitu gabe zela, GALEn lehen hildakotzat jotzen zuten. Geroztik, urtero egiten diote omenaldia Azkoitian bertan, hil zuteneko urtemugan.

Kasuaren nondik norakoak

Espainiako Auzitegi Nazionalak zabaldutako sumarioan hasieran ez zen inor auzipetu. Gero, Perurena, Gurmino eta Olaskoagaren hilketekin batera sumario bakarrean joan zen. Inputatuen artean zeuden Luis Roldan –gobernuaren Nafarroako ordezkaria hilketaren garaian–, Jose Antonio Saenz de Santamaria, Andres Cassinello, Enrique Rodriguez Galindo, Felipe Bayo, Enrique Dorado guardia zibilak eta CESIDeko Emilio Alonso Manglano, Juan Alberto Perote, Emilio Jambrina eta Pedro Gomez Nieto. Horietako zenbaiti inputazioa kendu zitzaien gero. 2003ko urtarrilean artxibatu zuen auzia Auzitegi Nazionalak.